# Beste zenbait Iragarpen Ofizial
# Otros Anuncios Oficiales

GIPUZKOZKO FORU ALDUNDIA

IRAGARPENA, Orioko Plangintza Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 4.2.1 Sektoreko Erriberak Plan Partzialeko Elementu Aldaketaren espedientean hartutako erabakiari buruzkoa. 8802

ARRASATEKO UDALA

IRAGARPENA, S-17 Sektoreko (Kobate) Konpentsazio Batzordearen Ihardupenerako Estatutuen eta Oinarri-arauen Proiektuaren hasierako onarpenari buruzkoa. 8803

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

ANUNCIO relativo a acuerdo adoptado en el expediente de Modificación de Elementos del Sector 4.2.1- Plan Parcial de Erriberak del Texto Refundido de las Normas Subsidiarias del Planeamiento Municipal del municipio de Orio. 8802

AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

ANUNCIO relativo a la aprobación inicial del Proyecto de Estatutos y Bases de Actuación de la Junta de Compensación del Sector S-17 (Kobate). 8803

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## EKONOMIA, PLANGINTZA ETA INGURUGIRO SAILA

**2590**

233/1992 DEKRETUA, abuztuaren 11koa, Euskal Autonomi Elkarteko udalei eta mankomunitateei ingurugiro arloko antolakuntza, kudeaketa eta plangintza gara dezaten egitarauak ezartzeko dirulaguntzak ematea arautzen duena.

Ingurugiroaren arazoa bere osotasunean hartu behar den arren, arlo horretako arazo asko eta asko, batez ere herritarren eguneroko bizitzari zuzenean loturik daudenak, eremu mugatuetan, hau da udal edo eskualde mailako eremuetan aztertu daitezke eta aztertu behar dira, bai herritarrarengandik hurbilago daudelako bai lege aldetiko eginkortasun eta aginpideek horretarako bide ematen dutelako.

Ingurugiro arloan jarduterakoan udal-eremuetara jo behar da, biztanlego osoaren ingurugiro-egoeran maila zabalago batean islada eta eragina izango duten udaletako arazoak konpontzeko.

Bestalde, egiaztatuta dago udal edo eskualdeetako administrazioetan informazio, baliabide, kudeaketarako azpiegitura eta antolakuntzaren eskasia dagoela kasu askotan; hori dela eta, beharrezko jotzen da behar horiei aurre egiteko egitarauak babestea eta bultzatzea.

Horiek horrela, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1992ko abuztuaren 11ko bilkuran aztertu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailak Euskal Autonomi Elkarteko udalei eta mankomunitateei ingurugiro arloko antolakuntza, kudeaketa eta

## DEPARTAMENTO DE ECONOMIA, PLANIFICACION Y MEDIO AMBIENTE

**2590**

DECRETO 233/1992, de 11 de agosto, por el que se regula la concesión de subvenciones a los Ayuntamientos y Mancomunidades de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el establecimiento de programas que desarrollen la organización, gestión y planificación en materia de medio ambiente.

A pesar de que la problemática ambiental debe ser considerada en su globalidad, gran parte de los problemas medioambientales, especialmente los más directamente relacionados con la vida cotidiana de los ciudadanos, se pueden y deben abordar en ámbitos reducidos, en ámbitos locales o comarcales, tanto por cercanía al ciudadano como por efectividad y competencias legales.

Es necesario actuar, en materia de medio ambiente, desde ámbitos locales para dar respuesta a problemas locales que van a tener un reflejo e influencia en el estado medioambiental de toda la población a niveles más generales.

Por otro lado, está constatada, en muchos casos, una falta de información, recursos, infraestructura de gestión y organización apropiadas, en los niveles de administración local o comarcal, por lo que se considera necesario el apoyo e incentivación a los programas destinados a hacer frente a estas necesidades.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía, Planificación y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 11 de agosto de 1992,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– El objeto del presente Decreto es la regulación de las normas generales y criterios mínimos que han de regir la concesión de subvenciones por

plangintza gara dezaten egitarauak ezartzeko dirulaguntzak emateko arau orokorrak eta gutxienezko erizpideak arautzea da Dekretu honen helburua.

*2. atala*.– Xedapen honen bidez araututako dirulaguntzez baliatu nahi duten erakundeek Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailean eska ditzakete, Dekretu honetan eta berau garatzeko eman daitezen xedapenetan ezar daitezen betebeharrei eta jardunbideari lotuz.

*3. atala*.– Dekretu honetan ezarritakoaren arabera eta Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailaren helburu eta egitekoekin bat etorriz, ondoko egitarauak garatzeko emango dira dirulaguntzak:

– Udalean edo eskualdean ingurugiro-arloa antolatzeko.

– Arlo hori giza eta gauzazko baliabideez hornitzeko.

– Udalean edo eskualdean ingurugiroaren kudeaketari loturiko azterketak, planak eta egitarauak gauzatzeko.

*4. atala*.– Dirulaguntzak emateko aldizkako deialdiak Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburuaren Aginduz egingo dira, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira indarrean dauden aurrekontu-xedapenetan ezarritako epeetan edo Ogasun eta Finantza sailak horretarako eman ditzanetan.

*5. atala*.– Argitara daitezen deialdietan ondoko hauek adieraziko dira:

a) Dirulaguntzaren gaia eta zenbatekoa edo, hala badagokio, zenbatekoa zehazteko erizpideak.

b) Dirulaguntza eskuratzeko esleipendunek betebeharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua eta epea.

c) Salbuespen gisa aurretiazko ordainketarik egin behar izanez gero, esleipendunek aurkeztu beharreko bermeetarako epea, ordaintzeko modua eta erregimen berezia.

d) Dirulaguntza edo laguntza esleitzeko erizpideak eta dirulaguntza kudeatzeko ardura duten organoak.

e) Esleipendunak, dirulaguntzak zuen helburua bete duela eta hartutako dirua zertan erabili duen egiaztatzeko duen epea eta modua.

f) Bestelako dirulaguntza edo laguntzarekin bateragarri den edo, hala badagokio, bateraezintasuna.

g) Dirulaguntza edo laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira, hartutako dirua itzuli beharra.

h) Jardunbidearen betebeharrak, esate baterako, zein organori aurkeztu behar zaizkion eskabideak, aurkezteko epea eta eskabidea egiteko modua.

i) Dirulaguntzak behar bezala izapidetzeko jakin behar diren alderdiak eta berezitasunak.

parte del Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente a los Ayuntamientos y Mancomunidades de la Comunidad Autónoma Vasca para el establecimiento de programas que desarrollan la organización, gestión y planificación en materia de medio ambiente.

*Artículo 2*.– Las Entidades que deseen acogerse a las subvenciones reguladas en la presente disposición podrán solicitarlas en el Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente, de acuerdo con las condiciones, requisitos y procedimiento que se establecen en este Decreto y en las disposiciones que se dicten en su desarrollo.

*Artículo 3*.– De conformidad con lo previsto en el presente Decreto y, en consonancia con los objetivos y funciones del Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente, podrán ser otorgadas subvenciones para desarrollar programas dirigidos a:

– Organizar el área de medio ambiente en el ámbito municipal o comarcal.

– Dotar a este área de recursos humanos y materiales.

– Realizar estudios, planes y programas en temas relacionados con la gestión del medio ambiente en los ámbitos local o comarcal.

*Artículo 4*.– Las convocatorias periódicas para la concesión de subvenciones revestirán la forma de Orden del Consejero de Economía, Planificación y Medio Ambiente, y serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco en los plazos previstos en las disposiciones presupuestarias en vigor, o en aquellas que dicte al efecto el Departamento de Hacienda y Finanzas.

*Artículo 5*.– Las convocatorias que se publiquen contendrán como mínimo los siguientes extremos:

a) Definición del objeto de la subvención y cuantía de la misma o, en su caso, criterios para su determinación.

b) Requisitos que habrán de reunir los beneficiarios para la obtención de la subvención y forma y plazo de acreditarlos.

c) Plazo, modo de pago y régimen particular de garantías que en su caso deberán aportar los beneficiarios para los supuestos excepcionales de pagos anticipados.

d) Criterios de adjudicación de la subvención o ayuda y órganos encargados de la gestión de la misma.

e) Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

f) Posibilidad de concurrencia con otras subvenciones o ayudas o, en su caso, incompatibilidad con su percepción.

g) Obligación de reintegro de los fondos percibidos en el supuesto de incumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la subvención o ayuda.

h) Los requisitos de procedimiento, tales como órgano ante el que deben presentarse las solicitudes, plazos de presentación de las mismas y forma de efectuar la solicitud.

i) Todos aquellos extremos y particularidades necesarios para la adecuada tramitación de las subvenciones.

*6. atala.*– Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailak erabaki bidez zehaztuko ditu behin-betikoz esleipendunak eta eman beharreko dirulaguntzak. Dirulaguntza ukatu edo eman dela doakienei jakinaraziko zaie.

*7. atala.*– Dekretu honetan araututako dirulaguntzak lankidetza-hitzarmenen bitartez bideratu daitezke, Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailaren ustez bi alderdietako bakoitzaren eskubide eta betebeharrak zehatzago finkatu behar badira. Horrelakorik izanez gero, berariaz adieraziko da dirulaguntza emateko erabakian.

*8. atala.*– Emandako dirulaguntza, Dekretu honetako 6. atalean adierazitako esleipen-erabakiaren ondoren edo, hala badagokio, 7. atalean aipatutako lankidetza-hitzarmenak izenpetutakoan ordainduko da.

*9. atala.*– Dirulaguntzaren onuradun izan dadin erakundeak, esleipen-erabakian edo, hala badagokio, lankidetza-hitzarmenean eta Dekretu honetan eta ezarri daitezkeen gainerako arauetan zehaztutako baldintzak betetzen ez baditu, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/91 Dekretuan ohartemandako xedapenak erabiliko dira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Aginpidea ematen zaio Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailari Dekretu hau garatzeko beharrezko jo ditzan xedapenak egiteko.

*Bigarrena.*– Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko abuztuak 11.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Sailburua,
JON LARRINAGA APRAIZ.

*Artículo 6.*– El Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente, procederá a dictar resolución en la que se determinarán de forma definitiva los beneficiarios y las cuantías de las subvenciones a otorgar, y notificará a los interesados la denegación u otorgamiento de las mismas.

*Artículo 7.*– Las subvenciones reguladas en el presente Decreto podrán instrumentarse mediante Convenios de Colaboración cuando a juicio del Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente sea precisa una mayor pormenorización de los derechos y deberes de ambas partes, supuesto que será expresamente indicado en la resolución de concesión.

*Artículo 8.*– El pago de la subvención concedida será hecho efectivo posteriormente a la resolución de concesión citada en el artículo 6 del presente Decreto o tras la firma, en su caso, de los convenios de colaboración citados en el artículo 7.

*Artículo 9.*– En el supuesto de que la entidad beneficiaria de la subvención incumpliera cualquiera de las condiciones establecidas en la resolución de concesión o, en su caso en el Convenio de Colaboración, así como en el presente Decreto y demás normas aplicables, serán de aplicación las disposiciones contenidas en el Decreto 698/91, de 17 de diciembre por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente a dictar cuantas disposiciones se estimen necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de agosto de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Economía, Planificación y Medio Ambiente,
JON LARRINAGA APRAIZ.